



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
ZK/NRO 37000126	

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2017ko MARTXOA - 182. zenbakia

Martxoaren 25ean egingo dugu Batzar Nagusia

Ozaetan izango da aurtengo hitzordua; bazkide guztiok gonbidatuta zaudete.

Arabak hartuko du aurten Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Batzar Nagusia. Martxoaren 25ean izango da hitzordua, 11:00etatik aurrera, Ozaetako Iduia jauregian.

Lurraldeetako Bertsozale Elkarte gehienek egin dituzte jada beren batzarrak: urtarrilaren arabarrek egin zuten lehenik eta martxoaren 11n egingo du azkena Bizkaiko Bertsozale Elkarteak. Gero gauzatuko da, esan bezala, herrialde guzti hauek batzen dituen Euskal Herriko Bertsozale Elkartearena.

Iñaki Murua Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakariaren hitzek emango diote hasiera Batzar Nagusiari. Horren ostean, 2016. urteari erreparosoa egingo diogu: urteko memoria eta balantze ekonomikoak aurkeztuko ditugu.

Aurrera begira jarriko gara gero eta urte honetarako esku artean ditugun egitasmo nagusiak ezagutuko ditugu sail bakoitzeko ordezkarien eskutik. Lurralde bakoitzaren egoera ere ezagutuko dugu lehendakarien ahotik. Batzarra amaitzeko, 2017ko aurrekontua aurkeztu eta bozkatuko da.

Batzarraren ostean, bazkaria egingo dugu 14:00etan, Ozaetan bertan. Bazkarira joan nahi duzuen bazkideok martxoaren 13a baino lehen jakinarazi beharko duzue, 943694129 telefono zenbakira deituta edo komunikazioa@bertsozale.eus helbide elektronikora idatzita.

Herrialdeetako batzarrak

Urtarrilaren 21ean Laudion egin zuen lehen batzarra Arabako Bertsozale Elkarteak. Hitzordua Arabako Bertsolari

Txapelketa aurkezteko baliatu zuen bidenabar.

Segidan etorri ziren Gipuzkoakoa eta Nafarroakoa. Urtarrilaren 28an egin zen lehena Azpeitian eta otsailaren 4an, Iruñean, bigarrena. Bi kasuetan, arabarren antzera, batzarra bakarrik ez eta egun horretan bertan egitasmo bana jarri zituzten martxan: Gipuzkoako Herriartekoa eta Nafarroako Bertsolari Txapelketa.

Otsailaren 18an egin du Bertsularien Lagunak Elkarteak Senperen eta azkenik, martxoaren 11n egingo du berea Bizkaiko elkarteak.



2016ko Batzar Nagusia.//XDZ



**MAIDER
ARREGI MARKULETA**
Algorta, 2017-II-17
XVI. Abra Bertso Sariketaren
irabazlea

Doinua: Hil da Canovas fuera Canovas III

Mila zorion atzeko bostei aritu zarete *chapeau* baina norbaitek jantzi behar ta gaur txapela neretzako. Batzutan gai bat jartzen digute ta jotzen gaitu a saco. Beraz txapela zuentzako da garrantzitsua delako: ispilu aurrean ondo sentitu ez zaretan denontzako.

Argazkia: Algortako Bertsolari Eskola

F.C.BAIMEA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xempelar Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazioa@bertsozale.eus

Finalurrekoetan dira Arabako eta Nafarroako bertsolari txapelketak

Azken txanpan sartuta daude Arabako eta Nafarroako bertsolari txapelketak. Kanporaketak jokatuta, finalurrekoak eta finala falta zaizkie bi herrialdeei txapelduna izendatzeko.

Txapelketan bete-betean murgilduta daude arabarrak eta nafarrak. Arabako Bertsolari Txapelketan finalurrekoen bigarren itzulia jokatu da hilabete honetan: martxoaren 4an, Legution; martxoaren 11n, Laudion; eta 18an, Aramaion. Finala apirilaren 1ean izango da Gasteizko Principal Antzokian, 17:30ean. Sei bertsolarik kantatuko dute.

Sarrerak Principal Antzokiak eskaintzen dituen bideetatik bakarrik erosi ahal izango dira. Bertako leihatilan, telefonoz (945 161 045) edota Internet bidez, antzokiaren web orrialdean sartuta www.principalantzokia.org

Sarrerak zenbakituak izango dira. Beraz, erosi baino lehen pentsatu non eseri. Bazkideek saiora sartzean erakutsi beharko dute bazkide txartela; erosteko, ez da behar.

Apirilaren 8an, Nafarroako finala

Hiru finalurreko jokatu dira Nafarroan ere: martxoaren 18an, Beran; martxoaren 19an, Antsoainen; eta martxoaren 26an, Agoitzen. Hor zehaztuko dira zortzi finalistak.

Apirilaren 8an izanen da finala, 17:00etan, Iruñeko Anaitasuna kiroldegian. Saioaren ostean, afaria egingen da Iruñeko Arrano Elkartean, 22:00etan. Biharamunean, apirilaren 9an, Korrikak Iruñean egingen ditu bere azken kilometroak, eta han egingen du bukaera jaia ere. Asteburu horretan, beraz, euskalgintzaren eta kulturagintzaren hiriburu izanen da hiri zaharra.

Finalurrekoetarako, finalerako eta finalaren osteko afarirako sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian eskuratu ahal izango dira. Hainbat herritan ere izanen dira salmenta puntu fisikoak. Txapelketa biei buruzko informazio osoa www.bertsozale.eus webgunean aurki daiteke.

Esti Alberdi: "Zorionekoak gu bertsolaritzaren altxorra aisialdiarekin lotuta eskaintzen diegulako gure haur eta gazteei!"

20 urte pasatu dira Bertso Udalekuak lehenengo aldiz egin zirenetik. Azken urteetan bezala, aurten ere bost txanda antolatuko dira Euskal Herriko hainbat txokotan. Esti Alberdi Burgoa Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko Bertso Udalekuen koordinatzailea da, eta 2006tik ari da udalekuetan hainbat zereginetan. Xehetasunak eman dizkigu.

Euskal Herriko txoko guztietako gazteak batzen dira Bertso Udalekuetan.

Urtero antolatzen ditugu bost txanda bost herrialdetan: Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan urtero, eta Lapurdin, Xiberoan eta Baxenabarren aldiro txandakatu. Lekuak eragina dauka, baina baita parte-hartzaileak Euskal Herriko txoko guztietakoak izateak ere. Zoragarria da euskalkien aniztasuna eta horrek harremanetan sortzen duen aberastasuna. Hasieran nahasmena sortzen duten euskalkiek sekulako jakin-mina pizten diete gazteei: elkarren hizketa moduak ezagutzeko, erabiltzeko, konpartitzeko eta bizitzeko. Horrela, hizkuntza ardatz bihurtzen da ezagutza eta ikasteko motibazioaren oinarrian.

Zein balio transmititzen dira?

Udalekuek irauten duten denboran zehar-lerro moduan lantzen ditugu balioak: errespetua, entzute aktiboa, elkartasuna, enpatia... eta bereziki hezkidetzeta eta genero ikuspegia. Gainera, adinaren arabera egokitutako jolas, eztabaida edota gogoeten bitartez ere lantzen dira balioak: sormena,

autoestimua, norbera izatea, taldearen garrantzia, eta abar.

Bertsoarekin nolako lotura izaten dute gazteek egun horietan?

Bertsoa zein bertsolariekin zuzeneko harremana dute udalekuan. Txanda bakoitzean bertso bazkari edo afari bat egiten da eta haur eta gazteek aukera ederra izaten dute bertsolariekin jolasteko, hitz egiteko eta bertsotan jarduteko. Dena den, ez da bertsoarekin bakarrik lerrotutako jarduna, beste ahozko diziplinak ere jorratzen ditugu: kantua, ipuina eta antzerkia esaterako, elkar elikatu eta osatzen duten ekintza desberdin eta anitzak burutuz. Horrela lortzen dugu genero desberdinetan sakondu eta bakoitzak bere burua hobeto ezagutzea.

Begiraleak ere bertso mundukoak izan ohi dira.

Begirale guztiak, esatera ausartuko nintzateke, udalekuen emaitza dira. Beraiek udalekuetan eta bizitzaren plazan jasotakoa transmititzen ari dira. Horrela, ikaste prozesua eta praktika eskutik doaz. Zorionekoak gu bertsolaritzaren altxorra aisialdiarekin lotuta eskaintzen diegulako gure haur eta gazteei!

Udalekuek ateak zabaldu ohi dizkiete gazteei, ezta?

Horrela da. Udalekuetan egindako ezagunek eta lagunek harreman paraleloa eraikitzen dute, muga guztien gainetik luzaro irauten duena. Harreman horiek hurrengo pausoak ere errazten dituzte; unibertsitateko ikasketetara urratsa ematean, adibidez.

Bertsolaritzari buruzko zazpi doktore tesi bidean

Inoiz baino ikerketa gehiago daude aldi berean abian bertsoaritzaz ikertzen; agerian da Mintzola Ahozko Lantegiak eta UPV/EHUK ikerketa deialdiekin egindako apustua emankorra izan dela.

Zazpi doktore tesi ari dira egun bertsoaritzaren zirrikituak behatzen. Tesi horietako batzuk Mintzola Ahozko Lantegiak eta UPV/EHUKo Euskara eta Ikerkuntza Errektoreordetzek zein Mikel Laboa Katedrak eskaintako ikerketa kontratuei esker abiarazi dira. Aitzitik, beste batzuk Eusko Jaurlaritzak finantzatutakoak dira.

Aipatu deialdiko ikerketa kontratua erdietsi zuen 2013an Miren Artetxek eta *Bertsolaritzaren transmisioaren eragina euskararen berreskuratze prozesuan* ari da ikertzen. Aurtengo deialditik atera dira Oihana Iguaranen eta Eñaut Agirrerren ikerketak: lehenak *Bertsoaren Agenda. Agenda settingak bertsoaritzaren diskurtsoan duen eragina* izeneko ikerketa martxan du eta bigarrena *Ahozko hizkeraren ezaugarriak bertsoariaren bat-bateko jardunean* ari da aztertzen. Ainhoa Aizpurua, berriz, *Bertsolaritzaren prosodia* izeneko tesiarekin ari da, Mikel Laboa Katedrak sustatuta. Bestalde, iragan urtean Mintzolak eta Laboa Katedrak esleitutako proiektu sariduna izan zen Beñat Romera,

bertsoaritzaz eta irudiaren arteko lotura ari da ikertzen, Eusko Jaurlaritzak finantzatuta.

Horietaz gain, Antxoka Agirre *Bertsolaritza eta kazetaritza* izeneko tesia bukatzen ari da; Izaro Goienetxe, berriz, bertsoaritzaz doinuak ikertzen dabil bere tesiaren baitan; eta Blanca Lopez bertsoariaren entzumen arreta ikertzen ari da.

Proiektu sariak, tesirako bide

Ikerketa kontratuen deialdiarekin batera, proiektu sariaren deialdia ere egin da 2014tik. Bata bestearantz osagarri dela nabarmendu da aurtengoan; hain zuzen, proiektu sariaren deialdia kontratuen deialdiarentzat onuragarri gertatu da, beste zenbait urtetan sarietarako pausoa eman zutenek kontratura aurkezteko urratsa egin baitute, eta hala ikerketa tesiak abian jarri.

Informazio gehiago www.mintzola.eus orrialdean.

Xenpelar Dokumentazio Zentroak eta Eresbilek hitzarmena sinatu dute

Musikaren eta bertsoaritzaren ikus-entzunezko ondarearen zaintzak eta zabalkundeak gaur egun dituen erronkei erantzuteko elkarlana sendotu nahi da.

Eresbil Musikaren Euskal Artxiboko eta Xenpelar Dokumentazio Zentroko ordezkariak Amasa-Villabonako Subijana etxean bildu ziren pasa den otsailaren 1ean, lankidetzaz hitzarmena sinatzeko.

Bertsozale Elkarteak eta Mintzola Ahozko Lantegiko koordinatzaile den Aritz Zerainek, Xenpelar Dokumentazio Zentroko koordinatzaile diren Nere Erkiagak eta Oihana Aranburuk, eta Eresbil Musikaren Euskal Artxiboko zuzendaria den Jon Bagüések hartu zuten parte.

Hitzarmenaren helburua bi erakundearen arteko esperientzia eta ezagutzak trukatu eta herritarrei zerbitzu hobea eskaintzea da, bai musikaren eta bertsoaritzaren inguruko elkarlana sendotuz, baita Mintzola Ahozko Lantegiaren bidez, musikaren eta munduko kantu inprobisatuen inguruan elkarlana bultzatuz ere. Hala, musikaren eta bertsoaritzaren ikus-entzunezko ondarearen zaintzak eta zabalkundeak gaur egun dituen erronkei erantzuteko elkarlana sendotu nahi da, baliabideen ustiapen handiena egin eta informazio zerbitzuak hobetzeko.

Eresbil musikaren ondarea eta euskal musikagileen ekoizpenean espezializatutako zentroa da eta 1974tik hainbat zerbitzu eta egitasmo eskaintzen ditu. Euskal musikaren ikerketa eta zabalkunde lan handia egiten du.



Oihana Aranburu, Nere Erkiaga, Jon Bagüés eta Aritz Zerain.//XDZ



Puntu jarrita

AITOR SARRIEGI GALPARSORO

Kosta zaidak baina harrapatu haut azkenean urtearen hondarrean. Ez diat ukatuko urte askoan txapelketaren zale izan naizenik. Gustuko giroa eta plaza izan duk niretzat, eta estuasunak estuasun eroso sentitu nauk gauzak ongi zein gaizki atera. Gustuko diat bertsozaleentzat ere badira saioak, bertsozaleek eta euskara ikasleek bat egitea nahi baita. Hala, 25 bertso saiotik gora eskainiko dira martxoan. Agenda osoa bertsozale.eus helbidean topa daiteke.

Txapelketa urtea aurten. Ez diagu Valentinoren palmaresik, baina gure motorrak 20 urte baditik Txapelketa Nagusiaren zirkuituetan bueltaka, eta ezin ukatu nekatzen hasia denik. Nere baitan askotan pentsatu diat ez dudala sekula Txapelketa Nagusi batean hasi eta buka nahi bezalako saiorik osatu. Ez zakiat gainerakoek berdin sentituko duten, baina badiat arantza bat hor, %80 baino gehiagoko errendimendurik eman ezin duen motorraren pareko zerbait.

2017koa izango duk nire azken Txapelketa Nagusia apokalipsi berririk ezean. Aho-zapore gozoz bukatu nahi nitek, eta %80ko langa hori gainditzea izango duk nire helburua. Horretarako, baina, ezinbestekoa duk 20 urterekin izaten den gosea, eta behar bezala motibatze heldulekuak ere bidearen bi aldeetan sakabanatuz joaten dituk urteekin, bidetik gero eta aldeniago.

Urteen joana ez duk heldulekuetara iristeko zailtasun bakarra. Ez zakiat gu baino gazteagoak direnei ere ez ote zaizkien bizitzaren bidegurutzetan sakabanatu, aukeran dituzten bideak ere gureak baino lausoagoak direlako akaso.


Bidegurutze horien artean habil hi ere, lñaki. Ikusten al duk heldulekurik? Nola motibatu Txapelketa Nagusirako?

Koplak

Bertso Korrika herriz herri ariko da testigua pasatzen

Martxo osoan egongo dira Bertso Korrika ekimenari lotutako saioak Euskal Herriko hainbat txokotan. Bertso Korrikarekin bertsozaleentzat ere badira saioak, bertsozaleek eta euskara ikasleek bat egitea nahi baita. Hala, 25 bertso saiotik gora eskainiko dira martxoan. Agenda osoa bertsozale.eus helbidean topa daiteke.

Poto-Finixa



Denetik egitea tokatzen da...

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Egin jauzi digitalera!

BertsoZalea berripapera posta elektronikoan jasotzeko aukera ere badago. Horretarako, idatzi komunikazioa@bertsozale.eus helbidera, eta hurrengo hilabetetik aurrera digitalean jasoko duzu Bertsozale Elkartearen berripapera. Ekologiari begirunea erakutsi paper gutxiago erabiliz, gastu ekonomikoak murriztu, eta sarean argitaratu baino lehen jasoko duzu. Idatzi orain!

Kontratazioak eta informazio gehiago:

Lanku
www.lanku.eus
943 26 07 55

TES TU RAK

TESTOIA: TESTOIA ZABALETIK. ESTURA

LITERATURA TESTUETIK ABIAZUTAKO BERTSO SAIOA

OHOLTZA

BENAT KROLEM

PETRESKU ETZI EZ ETSI!

PUBLIZITATEA